



Eladia eserita eta bere ahizpa Rosario tente, euren raketekin erretratatuta.

Eladia Zubizarreta Churruca, raketista:

“Pilotan jokatzeko asko disfrutatu dut”

Pilotarien familia izan da Zubizarreta Churruccatarrena: sei anai-arrebetatik, lauk pilotan jokatu zuten, Ignacio eta Fernandok zesta-puntan eta Rosario eta Eladiak raketan. Azken honek 96 urte ditu eta Sevillan bizi da; bere ahotik eta alaba Pilarren testigantzatik osatu dugu hurrengo orriotakoa.

Eladia 1923ko apirilaren 6an jaio zen Ermuko Artekaleko 11. zenbakiaren bigarren solairuan. Aitxa, Juan Cancio Zubizarreta Unamuno, ermuarra zen eta mallabitarra ama, Cornelia Churruca Amesti, Useleta baserriko alaba berau. Plazan bertan zegoen eskolara joaten zen Eladia; atsedena dietan eta eskolatik irteetan, eskolapean gustatzen zitzaion jolastea, frontoi gisa erabilitako horma hartan, ze gogoan duenez “plazako handia okupatuta egoten zen goizean goiztik palistengatik”.

Egunik zoriontsuena

Kontatzen duenez “neukan raketa zaharra zen, pilota gainera astuna eta gehiengoetan ez zuen boterik egiten. Baina ni zoriontsua nintzen eta izugarri maite nuen jolastea!”. Egun baten, Felix Izagirre palistak, bere akorduz “trenbi-

deetako langile baten semea eta txapelduna izan zena”, raketa bat oparitu zion. Hark haren baten plazako bere etxeko balkoitik ikusiko zuen neskatoa, jo eta jo, honen pilotari sena nolabait sumatuz. Raketa bat! Bere hitzetan, “nire bizitzako egunik zoriontsuena izan zen, zoratu egin nintzen, ze jolastea besterik ez neukan buruan!”.

36ko gerra zibilak pertsona askoren bizitza eten zuen, tartean euren aitarena: Juan Zubizarreta 1937ko urtarrilaren 4an hil zuten Bilboko Larrinaga kartzelari egindako zoritxarreko erasoan. Gatazka amaituta, gerrako umezurtz bezala, interna eraman zuten Bilboko Zabalbide kaleko Ángeles Custodios ikastetxera. Bertan urtebete eman zuen, harik eta “ahizpa bila etorri zen eta handik atera ninduten, etxean nire premia zutelako”.




Ermutik Eladiari bidalitako plaka oroigarria, raketista bezala egindako ibilbidea eskertuz.

“Kantxan bizkorra eta oso bizia zen, beti zekien pilota nora zihoan”



Madrid frontoiko iragarkia.



Madrilgo Chiqui frontoirako sarrera.

Amak Erdikokalean estand bat zeukan, Corneliana. 1964 inguruan Marcelino Menéndezek erosiko zion eta honen familiaren eskuetan jarraitu du gaur egunera arte. Jatorrizko eraikina uda honetan bota dute eta handik plazako frontoira bide zuzena zabalduko dutela entzuteak ilusioa egin zion Eladiari, berak ezagutu zituen Ermuko leku eta pertsonen berri izateak sortzen dion ilusio berbera.

“Ermua II”

Norberaren jaiotetxearen leiho batzuk frontoi baten zabalera emateak zeresana ote du ofizioa eta afizioa aukeratzeko? Gauza da Eladiak raketista bezala jokatzen eta prestatzen jarraitu zuela eta bera baino nagusiagoa zen Rosario

ahizpak ere horretan ziharduela. Hau, pilota munduan, “Ermua I” izango zen eta Eladia “Ermua II” bezala emango zen ezagutzera, Salamankako Tormes frontoian debutatuz 16 urteko gaztetxoa zela. Bartzelonan gero hilabete t’erdi jokatu zuen, baina denbora gehien Madrilen emango zuen, profesional mailan jokatuz, harik eta 21 urterekin ezkondu zen arte. Kapitalean jokatu zuen bi frontoietatik, Madrid eta Chiqui, bere iritziz azken hau hobeto zegokion. Zergatiaz galdetuta, aipatzen digu agian zela Ermuko eskolapeko hura gogora ekartzen ziolako, bere lehen pilotakaden lekuko. Bere ahizpa gazteenak, Begoñak, gogoran du lau anai-arreba pilotarien joko berezitasunak




FUB

Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ez. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**



*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*


**Egokitutako burua
garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

eta Eladiaren gainean aipatzen du “kantxan bizkorra eta oso bizia zen, beti zekien pilota nora zihoan”.

Raketisten artean ohikoa zen irabazien zati bat familiari bidaltzea, euren gastuetarako lainekoa gorde ostean; diru-iturri horren gainekoa, ondoko berbekin laburtzen du berak:

“Orduan egiten zen: jokatu, dirua irabazi eta amari bidali”.

Frontoirik frontoi

Bere gizona izango zena, Lucas Zamarriego García pediatra eta poeta segoviarra, frontoian ezagutu zuen, edo hobeto esanda beronek bota zion begia, lagunekin partiduak ikustera joaten zene-

“Nahiz eta 80 urte izan Ermutik irten zuela, Sevillan oraindik ea euskalduna den galdetzen diote”

an. Madrilen bertan ezkondu ziren 1946ko abenduaren 30ean eta, raketisten artean ohikoa zen bezala, bere lanbidea utzi zuen familiari buru-belarri dedikatzeko. Ca-bra, Kordobako probintzian, bikotearen lehen destinoa izango zen, bertan jaio zirelarik Carmenchu, Cristina eta Pilar alabak. Laugarrena, Eladia, Sevillan jaioko zen, urteak beranduagotik aurrera familiaren bizileku.

Eladia Zubizarreta hiri hispalensean bizi da, zoriontsu bere alaben arrimura eta pozak zoritzen bere 11 biloba eta 12 birbilobekin. Nahiz eta 80tik gora urte izan bere lurrotatik irten zuela, ahaztu barik ditu euskarazko abesti batzuk eta Sevillan oraindik ea euskalduna den galdetzen diote, berbetan iparraldeko esamolde eta musikalitatea mantentzen dituelako. Gozatu egiten du alabekin Internet bidez Ermuko antzinako argazkiak

ikusten, lekuak eta aurpegiak errekonozitzen edo urte haietako anekdotaren bat gogoratzen.

Auñamendi Euskal Entziklopediaren bertsio digitalean sarrera bat dago bere izenean. “Zubizarreta, Eladia. Pilotaria. XX. mendeko 40. hamarkadan Madrid frontoiko emakumeen taldeko kidea izan zen”. Ermuan 2003ko abenduaren 26an ospatutako IV. Pilota Egunaren ostean, plaka oroigarri bat helarazi zitzaion, ondo gordeta eta estima handitan duena: “ELADIA ZUBIZARRETA, jaso ezazu Ermuar danon esker ona, raketista munduan egin duzun ibilbide luze eta emankorreragaitik”. Hori da Eladia, jaso gure errekonozimendua eta esker ona, eta hor doa musu fresko-fresko bat, jaio zinen Ermuko Erdikokaleko etxe paretik, hartu zintuzten Sevilako lur epel horietaraino!

Estibalitz González



Artekalere, gaur Erdikokale 11, Eladiaren jaioetxea.



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



Gosariak, pintxoak, afariak

Egunero zabalik
8:00etatik aurrera

San Pelaio zeharbidea 4
608 736 900

Komunitateak

San Pelayo

**Aholkularitza
juridikoa**

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Menuak, ospakizunak...

Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533



Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154